

OSASUNARI BURUZKO ARAUDIA

Haur txikien immunitate-sistema murriztua da eta horregatik helduak baino samurrago gaixotzen dira. Haurrak, gaixorik dagoenean, arreta eta baldintza bereziak eskatzen ditu, alegia ikastetxeek eskaini ezin dituztenak. Horrela, gaixo-aldian eskolaratzeak atzeratuko luke sendatzea. Haurra gaixorik dagoenean etxean zaindu behar da, gaixotasun egoerak eskatzen duen arreta, atsedena eta zaintza egokienak etxean ematen direlako.

● Haurra noiz EZ DA eraman behar ikastolara?

1. Sen onak hala esaten digunean.
2. Ikastolan eman ezin zaion zaintza behar duenean edo ikastolako ekintzetan egoki parte hartzeko moduan ez dagoenean.
3. Besteak beste, honako sintoma hauek dituenen:
 - Sukarra edo febrikula. Baina, nola definitzen da sukarra?
 - ✚ TENPERATURA NORAMALA: 37 gradutaraino besapean.
 - ✚ FEBRIKULA: 37 eta 38 gradu artean.
 - ✚ SUKARRA: 38 gradutik gora.
 - *24 ordu sukarririk edo febrikularirik gabe egon ondoren eraman daiteke ikastolara.
 - Arnas zailtasuna edota eztul iraunkorra (ez bada katarro arrunta).
 - Suminkortasuna (negar kontsolaezina).
 - Gorakoa.
 - Hauetako gaixotasunaren bat duenean:
 - ✓ Beherakoa: kaka normaldu eta 24 ordu igaro ondoren eraman daiteke ikastolara.
 - ✓ Konjuntibitis zornetsua (begiak gorri eta jarioa): tratamendua hasi eta 24 ordu igarotakoan eraman daiteke ikastolara.
 - ✓ Infekzioa azalean (inpetigoa).
 - ✓ Exantemak (mantxak azalean), aftak eta eskarlatina.
 - ✓ Zorriak (tratamendu gabe).
 - ✓ Hazteria, barizela, kukurruku-eztula, elgorria, hazizurria, tuberkulosia, A hepatitis.
 - ✓ Pediatrak edo sen onak gomendatzen duen beste edozein egoeratan.

- **Noiz itzuli daiteke ikastolara?**

Lazkaoko pediatria sailak emandako aholku eta dokumentazioan (Gipuzkoako osasun publikoko epidemiologia unitateak ikastetxeetan infekzioak kontrolatzeko diseinatutako gida) oinarrituta, etxeratze-aldiak finkatu dira zenbait gaixotasunen aurrean:

1. Barizela: Puslak lehortu arte eta, gutxienez, erupzioa hasi eta 5 egun igaro ondoren.
2. Errubeola: exantema hasi eta 6 egun igaro ondoren.
3. Oin/esku/aho gaixotasuna: pediatrik alta ematean.
4. Inpetigoa: zauriak lehortu edo sendatu arte, edo antibiotikoa hartzen hasi eta 48 ordu igaro ondoren.
5. Elgorria: pediatrik alta ematean.
6. Lepamina: pediatrik alta ematean.
7. Hepatitisa: analisisien normalkuntza eta pediatrik alta ematean.
8. Eskarlatina: botika hartzen hasi eta 3 egun igaro ondoren.
9. Tuberkulosia: berriro eskolara joateko medikuaren baimena beharko da, bertan kutsatzeko arrisku eza adierazten delarik.
10. Gripea: erabat sendatu ondoren (gutxienez 24 ordu sukarririk gabe).
11. Kukurruku-eztula: antibiotikoarekin hasi eta 5 egun igaro ondoren.
Tratatu gabeetan 3 aste.

- **Medikazioari dagokionez:**

Gaixotasun iraunkor ez kutsagarriengatik, haurrek mediko-tratamendua behar izanez gero, eta botikak eskola orduen barne hartu behar badituzte, gurasoek hezitzaileari eman beharko diote pediatriaren errezeta, zeinetan dosia eta hartze-orduak azalduko diren. Botikak 8 ordutan behin edo gehiagotan hartu behar direnean, guraso edo gurasordeek eman beharko dizkiote, ikastolan sartu eta irteterakoan.

- **Elikadurari dagokionez:**

Haurren batek, gaixotasun bat dela medio, dieta berezi bat behar izanez gero, gurasoek medikuaren informea aurkeztu beharko dute, bertan haurrak jan ditzaken jaki-zerrenda zehaztu eta horren zergatiak azalduko direlarik.